

## Innobideak-Kudeabide 2022 Programa

<b>Helburua (1. oinarria)</b>	Kudeaketa hobetzeko proiektuei laguntzea du xedea, proiektuok Kudeaketa Aurreratuko Ereduarekin bat badatoz eta lehiakortasuna hobetzeko balio badute. Eusko Jaurlaritzak, SPRIk eta EAEko hiru aldundiek kudeatzen duten plan bat da.
<b>Erakunde Onuradunak (3. oinarria)</b>	Nortasun juridiko propioa duten enpresak: <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ egoitza sozial eta fiskala Bizkaian eta ekoizpen-zentro bat edo balio erantsi handiko bat Bizkaian izatea.</li> <li>▪ 5 langile edo gehiago eta 50 langile baino gutxiago izatea (lanaldi oso baliokidean).</li> <li>▪ jarduera sektore hauetan kokatuta egotea: industria, eraikuntza, garrarioa, industriarekin lotutako zerbitzuak, turismoa eta handizkako merkataritza (Dekretuaren eranskineko epigrafeen arabera) eta JEZen alta emanda.</li> </ul>
<b>Gehienez aurkez daitezkeen eskabideen kopurua (14. oinarria)</b>	Erakunde bakoitzak gehienez ere eskabide bat aurkez dezake.
<b>Diruz lagunduko den egitatea (4. oinarria)</b>	Kudeaketa Aurreratuko Hasierako Kontrasteari buruzko Txostenari erantzuten dioten finkatze-proiektuak (2B) diruz lagunduko dira, baldin eta proiektuotan aplikatu eta ezarriko diren metodologiek eta tresnek lehiakorrago izateko aukera ematen badiote enpresari, Kudeaketa Aurreratuko Ereduarekin bat. Horretarako, enpresek alde zuzenetik egin beharko dute hasierako kudeaketa Kontrastea, <a href="http://www.kudeabide.com">www.kudeabide.com</a> helbidean eskatzen dena
<b>Diruz lagundu daitezkeen gastuak (5. oinarria)</b>	Kanpoko aholkularitza-enprekin kontratatzea hartuko da diruz lagundu daitezkeen gastutzat, baldin eta gastuon xedea kudeaketa hobetzeko aurkeztu den proiektuaren barruko jarduketak egitea bada.
<b>Laguntzen zenbatekoa (6. eta 28. oinarriak)</b>	Diruz lagun daitezkeen gastuen % 60 - Gehienezko dirulaguntza 7.200 euro Diruz lagun daitezkeen gastuen %40 aurreko hiru ekitaldietako bitan Kudeabide programan % 60ko dirulaguntza lortu duten enpresen kasuetan - Gehienezko dirulaguntza 4.800 euro. Dirulaguntza ordainketa bakarrean ordainduko da onuradunak justifikatu ondoren.
<b>Araudia eta diru-laguntzak emateko araubidea</b>	63/2022 Foru Dekretua, maiatzaren 3koa (BAO 85zk. 2022ko maiatzaren 5ekoa). Emakida lehia askearen araubidean (emate indibiduala, zuzen osatutako eskaeren jasotze-hurrenkeraren arabera)
<b>Epeak (24. eta 13. oinarriak)</b>	<b>Diru-laguntza jasotzen duten proiektuak:</b> 2022eko urtarrilaren 1etik eta 2023ko urriaren 1era arteko epean, biak barne. <b>Eskabideak aurkezteko epea:</b> 2022ko maiatzaren 9tik irailaren 30eko 13:30etara arte. Eskabidea Ekonomia Sustatzeko Saileko Bulego Birtualaren bidez egingo da ( <a href="http://www.bizkaia.eus/sustapena-oficinavirtual">www.bizkaia.eus/sustapena-oficinavirtual</a> ). Horretarako, sinadura elektronikoa eduki beharko duzu (Izenpe, NAN elektronikoa, FEA...), edo B@kQ ziurtagiri elektronikoaren bitartez sartu. B@kQ ziurtagiria gure bulegoetan eska daiteke, Orueta Apezpikua kaleko 6an.

Ekonomia Sustatzeko Saila  
Berrikuntza Zerbitzua,  
Orueta apezpikua, 6. 48009 Bilbao

Argibideak:  
Tf.: 94 406 8008  
[berrikuntzazerbitzua@bizkaia.eus](mailto:berrikuntzazerbitzua@bizkaia.eus)  
[www.bizkaia.eus](http://www.bizkaia.eus)

